

NOLAKOA DA FORMENTERA?

Itxaso Mingoa bizkaitarra da, Leioakoa, baina orain Formenteran bizi da. Uharte horri buruzko informazioa emango digu irratiko elkarrizketa honetan.

Entzun audioa eta aukeratu erantzun egokia.

TRANSKRIPZIOA

Kazetaria 1. Gaur kopako partida du Athleticek Balear Uharteetan. Eta Athleticek gaur Formenteran partida duela-eta pentsatu dugu uharte hori, isla hori hobeto ezagutzea. Itxaso Mingo leioarra da, eta bertan bizi da. Itxaso, kaixo!

Itxaso Mingo. Egun on.

Kazetaria 1. Nolakoa da Formentera? Esplika iezaguzu, Itxaso, pittin bat:

Itxaso Mingo. Ba aber, da irla bat oso, aber, bai, da oso txikia. Baina badauka gauza handirik(asko) ikusteko.

Kazetaria 2. Bereziki jendea imajinatzen dut udaran joango zela, orain lasai egongo dela ez?

Itxaso Mingo. Bai, Klaro, orain ja jendea... Orain geratzen da jendea hemen, turistak, baina bueno, ja joan da, joan da bastante jende etxera, ja.

Kazetaria 2. Eta zu noiz joan zinen Formenterara bizitzera?

Itxaso Mingo. Ba ni etorri nintzen urtarrilean, aurten.

Kazetaria 2. Eta zergatik?

Itxaso Mingo. Ba begiratu, ze nire mutil-lagunak jokatzen du Formenteran, futboleak. Eta bueno, ba, nik ezagutu nuen Leioan pasa den urtean, eta bueno, ba pentzatu nuen, eta berarekin etorri nintzen hona.

Kazetaria 2. Baina zure mutilak gaur Athleticen aurkako partida jokatuko du?

Itxaso Mingo. Bai.

Kazetaria 2. A! Zure mutila nor da ba?

Itxaso Mingo. Bai, Gabriel Gómez.

Kazetaria 2. A, orduan zu gaur, beharbada, Athleticen, Athleticen aurka egongo zara, Formenteraren alde.

Itxaso Mingo. Bai. Bueno, holan nago, bihotza zatituta pixka bat. Baina, bueno, bai. Gaur tokatuko zait Athleticen aurka egotea.

Kazetaria 2. Eta zer esango zenioke Formenteran egon ez den norbaiti? Zergatik joan behar da Formenterara? Edo zer, zuk zergatik erabaki zenuen ba joatea? Zer pentsatu zenuen irla ezagutu zenuenean?

Itxaso Mingo. Ba begiratu, ez nuen ezagutzen Formentera, etorri nintzenean. Eta bueno, ni heldu nintzen neguan, eta hemen, claro, neguan ez da geratzen inor. Tabernak itxita daude, arropa-dendak ere bai, ez dago, ez da geratzen jendea kalean...Baina gero, badauzka leku oso, oso politak ikusteko: hondartzak...Badago Cap de Barbaria ezagutzen den faro handi bat. Eta ez dakit, da oso, oso lasaia. Sentitzen da bake handia hemen, irlan.

ENTZUMENAREN ULERMENA

Aukeratu erantzu egokiena

- Nolakoa da Formentera irla? Aukeratu ltxasok esaten EZ duena.
 - a. Txikia
 - b. Lasaia
 - c. Ez dago tabernarik
- Zer dauka ikusteko? Ondorengo zer EZ du esaten?
 - a. Museoak
 - b. Faroa
 - c. Hondartzak
- Orain, udazkenean, badago jenderik?
 - a. Turista asko itzuli da etxera
 - b. Ez da ia inor geratzen
 - c. Oraindik ere jende asko dago
- Noiz joan da ltxaso Formenterara?
 - a. Udan joan zen
 - b. Urteak daramatza
 - c. Aurten, urte hasieran
- Zergatik joan zen Formenterara?
 - a. Lanagatik
 - b. Maitasunagatik
 - c. Turismoa egin nahi zuelako
- Jokatuko den futbol-partidan, noren alde dago ltxaso?
 - a. Berdin zaio
 - b. Athleticen alde
 - c. Formenteraren alde

ERANTZUNAK

1. Ez dago tabernarik
2. Museoak
3. Turista asko itzuli da etxera
4. Aurten, urte hasieran
5. Maitasunagatik
6. Formenteraren alde

ETA ZER DAUKA IKUSTEKO?

Jarri talde txikitan. Txandaka, batek egon den leku Eder baten izena kontatuko du eta besteek galderak egingo dizkiote.

Honako galderak egin ahal dituzue:

- ↗ Nolakoa da? (handia, txikia, lasaia, zaratatsua, menditsua...)
- ↗ Zer dauka ikusteko? (hondartzak, mendiak, herriak...)
- ↗ Noiz eta norekin izan zara leku horretyan?
- ↗ Merezi du bisitatzea? Zergatik?
- ↗ Zer garai da ona hora joateko? (udazkenean, herriko jaietan...)
- ↗ ...